

Frente a la privatizacion, sanidad pública / Pribatizazioaren aurrean, osasun publikoa

PLATAFORMA NAVARRA DE SALUD/NAFARROAKO OSASUN PLATAFORMA :: 11/06/2021

Más de un año después del comienzo de la pandemia el deterioro de la sanidad pública es patente

[Euskara]

PRIBATIZAZIOAREN AURREAN: OSASUN PUBLIKOA

Datorren ekainaren 12an, Osasunaren pribatizazioaren Aurkako Koordinakundeak bultzatuta, mobilizazioak egingo dira hainbat hiritan, osasun publikoaren alde eta pribatizazio-prozesuek aurrera egin ez dezaten. Pribatizazio prozesu horiek maila eta modu desberdinan gertatzen ari dira lurralde bakoitzean.

Pandemia hasi eta urtebetera baino gehiagora, osasun publikoaren gainbehera nabarmen da: diru publikoaren kopuru handiak bideratu dira empresa pribatuetara, itxarote-zerrendak hazi dira, osasun etxeen artatua izatea ez da erraza, egoitzetako egoera kaltebera ez da zuzendu, aseguru pribatuak ugaritu egin dira eta dagoeneko 4 pertsonatik batek aseguru pribatu bat du estatuan.

Izan ere, pandemia negoziorako aukera bat da osasunarekin salerosketan ari direnentzat, eta, bien bitartean, sektore publikoak Covid-19a eragiten ari den ondorio sanitario, sozial eta ekonomikoak nozitu behar du. Eredu horri "lankidetza publiko-pribatua" deitu izan zaio, azken aldian oso modan egon dena. Izan ere, duela gutxi, Pedro Sanchezek iragarri du horixe dela gobernuak banguardiako osasunaren eremurako proposatzen duen formula, bioteknologian eta doitasunezko medikuntzan oinarritutako formula. Badirudi ahaztu egin zaiola biztanleriaren osasun-egoeran eragin handiagoa dutela gizartearren eta ekonomiaren aldagaien, osasun publikoko politikek eta oinarrizko arretak, amu gisa aurkezten diguten asistentzialismo elitista honek baino.

Era berean, Nafarroako Gobernuko Ekonomiaren eta Enpresen Garapeneko kontseilari Mikel Irujok, berriki Nafarroako Unibertsitateko CIMA - Medikuntza Aplikatuko Ikerketa Zentrora egindako bisitan, honako hau adierazi zuen: "CIMA erreferentziazko zentroa da ikerketa sanitarioan eta terapia aurreratuan, eta funtsezko eginkizuna betetzen du Nafarroako osasun-sistemaren sendotasunean". "Osasunaren sektorean dugu espezializazioa, lankidetza publiko-pribatuan oinarrituta, eta espezializazio horrek Nafarroa Europako eskualde handien artean kokatzen lagunduko du medikuntza pertsonalizatuan."

Badirudi berrikuntza eta garapen teknologikoa sektore pribatuak bakarrik gara ditzakeen eremuak direla, eta arlo publikoak izan dezakeen zeregin bakarra empresa-talde batzuen negozioa bermatzeko dirua jartzea dela, gero eta mendekoago baikara, sistema publikoetan inbertsiorik ez dagoelako. Hala gertatu da, nabarmen, Coviden aurkako txertoak garatu dituzten laborategiekin; izan ere, diru publiko ugari jaso ondoren, milaka milioi euroko

irabaziak lortu dituzte.

Nafarroan esperientzia luzea dugu lankidetza publiko-pribatuan, hitzarmenen bidez. Esaten digute sare pribatua beharrezkoa eta onuragarria dela gure gizartearrentzat. Are gehiago, Santos Indurain Osasun kontseilariaren beraren ahotik entzun ahal izan dugu pandemia honetan pazienteak pribatura bideratzea zuzeneko arreta baino merkeagoa dela. Bada, Kontuen Ganberaren arabera, 2020ko martxotik abendura bitartean, Nafarroako Gobernuak 7,8 milioi euro gastatu zituen Covid pazienteak Nafarroako Unibertsitatea klinikara (4,7 milioi), San Juan de Dios ospitalera (2,3 milioi) eta San Miguel klinikara (0,8 milioi) bideratzeko. Gastu horretatik, bi milioi euro baino gehiago ohe-erreserbarako erabili ziren, hau da, erabili ez baina egunean 181 euro ordaintzen ziren oheetarako. Ikusten denez, sistema oso bermatzailea da klinika pribatuentzat, eta oso kaltegarria diru-kutxa publikoentzat.

Ezin dugu onartu instantzia politikoetatik osasun publikoa degradatzen jarraitzea, eta, aldi berean, sektore pribatuaren irudia zuritzea eta dirua ematea. Apustu argia eta sendoa egin behar dugu kalitatezko osasun-sektore publiko bat garatzeko, modu demokratiko eta parte-hartzailean antolatua; prebentzioa, arreta eta ikerketa sustatuko dituena, bai eta sendagaien eta beste produktu batzuen ekoizpena ere. Egungo egoera eragiten duten lege pribatizatzaileak indargabetzea behar dugu, hala nola 15/97 Legea edo sasunari buruzko Lege Orokorraren 90. artikulua. Kalera atera behar dugu gure nahigabea eta kalitatezko osasun publiko unibertsalaren beharra adierazteko.

Horregatik, ekainaren 12an, Nafarroako Osasun Plataformak elkarretaratzea deitu du 12:30ean, Osasun Departamentuaren aurrean, Conde Oliveton.

Nafarroako Osasun Plataforma

ESPERO ZAITUGU

Nafarroako Osasun Plataforma/Plataforma Navarra de Salud

[Castellano]

FRENTE A LA PRIVATIZACIÓN: SANIDAD PÚBLICA

El próximo 12 de junio, impulsadas por la Coordinadora Antiprivatización de la Sanidad, van a llevarse a cabo movilizaciones en numerosas ciudades en defensa de la sanidad pública frente al avance de los procesos privatizadores que se dan en distinto grado y de distinta manera en cada territorio.

Más de un año después del comienzo de la pandemia el deterioro de la sanidad pública es patente: Se han dirigido grandes cantidades de dinero público a empresas privadas, crecen las listas de espera, los Centros de Salud son menos accesibles, la situación de vulnerabilidad en las residencias no ha sido corregida, ... Mientras están deteriorando, se están disparando los seguros privados y ya casi 1 de cada 4 personas tiene un seguro privado a nivel estatal.

Así es, la pandemia es un nicho de negocio para quienes mercadean con la salud, mientras el sector público debe acarrear con las consecuencias sanitarias, sociales y económicas que el Covid-19 está suponiendo. A este modelo han dado en llamarlo eufemísticamente colaboración público-privada, muy de moda en los últimos tiempos. De hecho, recientemente, Pedro Sánchez ha anunciado que ésta es la fórmula que propone el gobierno para el ámbito de la Salud de Vanguardia, basada en la biotecnología y la medicina de precisión. Parece olvidar que en el estado de salud de la población influyen más los condicionantes sociales y económicos, las políticas de salud pública y la Atención Primaria que este asistencialismo elitista que como señuelo nos presentan.

Del mismo modo, el consejero de Desarrollo Económico y Empresarial del Gobierno de Navarra, Mikel Irujo, en su reciente visita al CIMA Universidad de Navarra (Centro de Investigación Médica Aplicada), afirmaba: "El CIMA es un centro de referencia en investigación sanitaria y terapia avanzada que desempeña un papel fundamental en la fortaleza del ecosistema de salud navarro", "Nuestra especialización en el sector de la salud, sobre la base de la colaboración público privada, contribuirá a situar a Navarra entre las grandes regiones europeas en medicina personalizada."

Parece que la innovación y el desarrollo tecnológico sean ámbitos que únicamente el sector privado puede desarrollar y que el único papel que puede jugar lo público en todo esto se limite a poner dinero para garantizar el negocio de unos grupos empresariales de los que cada vez, por falta de inversión en los sistemas públicos, somos más dependientes. Así ha ocurrido, de forma flagrante, con los laboratorios que han desarrollado la vacuna anti-Covid que, tras recibir una ingente cantidad de dinero público, han logrado beneficios de miles de millones de euros.

En Navarra tenemos una larga experiencia en colaboración público-privada a través de la concertación. Nos dicen que la red privada resulta necesaria y beneficiosa para nuestra sociedad. Incluso, de boca de la propia consejera de Salud, Santos Indurain, hemos podido escuchar en esta pandemia que derivar pacientes a la privada resulta más barato que la atención directa. Pues bien, según la Cámara de Comptos entre marzo y diciembre de 2020, el Gobierno de Navarra gastó 7,8 millones de euros en derivar pacientes Covid a la Clínica Universidad de Navarra (4,7 millones), al Hospital San Juan de Dios (2,3 millones) y a la Clínica San Miguel (0,8 millones). De este gasto, más de dos millones de euros fueron en la reserva de camas, es decir en camas que no se llegaron a usar pero por las que se pagaban 181 euros al día. Como se ve, se trata de un sistema muy garantista para las clínicas privadas y muy perjudicial para las arcas públicas.

No podemos permitir que desde instancias políticas se siga degradando la sanidad pública a la vez que blanquean la imagen del sector privado y le inyectan dinero. Necesitamos una apuesta clara y contundente por desarrollar un sector público sanitario, de calidad, organizado de forma democrática y participativa, que promueva tanto la prevención, la atención y la investigación, como la producción de medicamentos y otros productos. Necesitamos que se deroguen las leyes privatizadoras que dan lugar a la actual situación, tales como la Ley 15/97 o el art. 90 de la Ley General de Sanidad. Necesitamos salir a la calle para expresar nuestro descontento y nuestra necesidad de una sanidad pública de calidad y universal.

Por eso, el 12 de junio, la Plataforma Navarra de Salud/Nafarroako Osasun Plataforma convoca una concentración a las 12:30h, frente al Departamento de Salud, en Conde Oliveto.

TE ESPERAMOS.

Plataforma Navarra de Salud/Nafarroako Osasun Plataforma

<https://eh.lahaine.org/frente-a-la-privatizacion-sanidad>